

IRAGARKIA

GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA – GUFE.

GUFEko lan-poltsak kudeatzeko irizpideak.

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzak 2018ko apirilaren 13an eginiko bilera arruntean, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«Lehenengoa.- Lan-poltsak kudeatzeko dokumentua onestea (eranskin gisa batu zaio iragarki honi), eta hark ondorioak izateko lehen eguna urte honetako irailaren 15era arte geroratzea.

Bigarrena.- GUFeko kudeatzailea gaitzea dokumentu horretan ezarritako zehaztapenak gauzatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta beroni batu zaion eranskina Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta GUFeko iragarki-oholean eta web-orrian argitaratzea, bai eta, laburtutako iragarkia, EHAAan eta Bizkaiko Lurralde Historikoan zabalkunderik handiena duten egunkarietan ere.»

Bilbon, 2018ko apirilaren 13an

GERENTEA



Sin.: Teresa Alba Zubizarreta